



Arartekoaren 2018R-2438-17 Ebazpena, 2018ko apirilaren 17koa. Horren bidez, Zallako Udalarari gomendatzen zaio udal inprimakietan datu pertsonalak tratatzeari buruzko informazio-klausularen edukia aldatzeko, baita inprimaki horietan bildutako datuen tratamenduaren xedearen edukia argi eta garbi jakinaraz dadin bermatzeko ere.

Aurrekariak

2017ko irailaren 29an, Arartekoaren esku-hartzea eskatzen zen kexa bat izapidetzea onartu zen, datu pertsonalak babesteko eskubidearen balizko urraketa bat dela-eta aurkeztutakoa, hain zuzen.

Kexagileak erreklamazio hori aurkeztu zuen Zallako Udalak hirugarrenei laga dizkielako udalak adingabeentzat eskainitako kirol-jardueretan izena emateko inprimakietan emandako datu pertsonalak -zehazki, bere identitate-datuak eta telefono-zenbakia-. Hain zuzen ere, joan den urteko irailaren 8an bete zuen inprimaki hori bere bi seme-alabak kirol anitzeko jardueran inskribatzeko.

2017ko irailaren 8an jardueran alta emateko betetako inprimakian, izen-emateaz arduratutako pertsonaren nahiz bere seme-alaben datu pertsonalak eta balizko ordainketak egiteko bankuko datuak agertzen ziren. Horrez gain, jarduerari buruzko informazioa ageri zen, baita Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik eratorritako informazio-klausula ere. Izan ere, horrek ezartzen zuen datuak Zallako Udala titular eta arduradun den fitxategian sartuko zirela, fitxategi horren xedea zein zen adierazten zuen, eta interesdunak informazioa eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak gauzatzeko aukera zuela zehazten zuen.

Kexaren sustatzaileak adierazitakoaren arabera, horren ostean, zehazki, irailaren 27an, bere seme/alaba bakoitzaren kirol-jardueren inguruko informazioa zeukaten bi SMS jaso zituen, bi telefono-zenbaki desberdinetatik, identifikatu gabekoak. Hala, mezu horiei erantzun zien emandako informazioaren inguruko galderak eginez baina ez zuen erantzunik jaso. Gainera, adierazi du, irailaren 29an, harrituta geratu zela, 48 pertsona zeuden "Multideporte 2017/2018" izeneko whatsapp-talde batera gehitu zutelako.

Kontuan hartu behar da kexagileak esaten duela berak ez duela bere datu pertsonalak erabiltzeko baimenik eman; bere esanetan, hizpide dugun kirol jardueran izena eman eta ordaindu besterik ez du egin. Hortaz, jakin nahi genuen zer formula baliatzen dituen udal horrek izena emateko sistema kudeatzeko eta zer tratamendu ematen zaien datu pertsonalei mota horretako jardueretan.

Hortaz, Arartekoak, joan den urteko azaroaren 10eko idazki baten bidez, Zallako Udalarari eskatu zion tokiko erakunde horrek "Cursos ciudadanía" izeneko fitxategian





dauden datu pertsonalak, hau da, erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen pertsonak emandako datuak tratatzeko erabilitako sistemari buruzko informazioa, baita balizko baimen edo onespenei buruzkoa ere. Horrez gain, kexagileak seme-alabak inskribatutako kirol-jarduerak kudeatzeko egindako datuen balizko erabilera edo lagapenen berri emateko eskatu zuen.

2017ko abenduaren 18an, Arartekoaren erregistroan sartu zen udalaren erantzuna. Bertan, laburbilduz, honako informazio hau eman zen:

- Aldi berean, kexagileak antzeko kexa bat aurkeztu duela Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean, bi erakundeen arteko komunikazioen kopia igorritz.
- Salatzailearen telefono mugikorraren datua eskatu zen tokiko administrazio horrek, kide den ikastetxeko Gurasoen Elkartearekin elkarlanean, legez adingabeen kirolaren eta jarduera fisikoa sustatzearen eremuan esleituta dituen eskumenak gauzatu ahal izateko (Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua, 19., 23., 33. eta 36. atalak).
- Kexagileak jasotako SMS mezua Zallako Udalak igorri eta sinatu zituen izena emandako jarduerak hasiko ziren daten berri emateko.
- Kirol anitzeko zerbitzua ematea errazte aldera, udalak gurasoen harremanetarako datuak jakinarazi zizkien zerbitzua emango zuen enpresari eta aipatutako Gurasoen Elkartei. Izan ere, datu horiek eman behar dizkiote Bizkaiko Foru Aldundiari, hain zuzen ere, adingabe horiek inskribatu ahal izateko jarduera horietan.
- Ildo beretik, Gurasoen Elkarteak ez daude behartuta gurasoen baimena eskuratzera datu pertsonalen tratamendurako baldin eta horiek Gurasoen Elkarteko kideak badira (zentzu horretan adierazten den Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Gida erantsiz).
- Beraz, salatzailearen baimenik behar ez bada datu pertsonalak tratatzeko, ezin da abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan jasotako jakinarazteko beharra urratu, arrazoi honengatik: *"manu horrek eskatzen duen jakinarazteko beharra bereziki dago lotuta Datuak Babesteko Lege Organikoaren ondorengo artikulua aipatzen duen interesdunaren baimena lortzearekin; hala ere, hori modulatu behar da baimena, kasu honetan bezala, nahitaezkoa ez denean"*.
- Kexagileak bere datu pertsonalak eman zituen kirol-jardueretan izena emateko inprimakian agertzen da Datuak Babesteko Lege Organikoari buruzko informazio-klausula; hortaz, aurretik aipatutako 5. artikulua bete egin da.
- Azkenik, Arartekoari eskatu dio kexa artxiba dezan, kontuan hartuta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean egitate berberak aztertzen dituen espediente bat aurkeztu egin dela

Udalak Datuak Babesteko Euskal Agentziari igorritako dokumentazioaren kopia abiatuta (ez Arartekoari zuzendutako erantzunean), jakin izan da Gurasoen Elkarteak sortu zuela whatsapp-taldea eta ez udalak. Hala ere, udalak ekimen





horren berri izan zuen eta elkarte horri eskatu zion taldea ezabatzeko eta hori egin zuten.

Ondorioz, badaude datu guztiak eta nahikoa osagai honako gogoeta hauek egiteko:

Gogoetak

1. Arartekoaren jarduketa-eremua

Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Arartekoa sortu eta arautzekoak- horren jardueraren berezko esparrua mugatzen du eta autonomi-erkidegoaren eremuan jarduten duten herri-administrazio guztiekin lotzen du. Hau da, botereak eta ahalmenak administrazio komunera zabaltzen dira, lurralde historikoen berezko administrazioa eta tokikora eta, horrela, herri-administrazioaren kontzeptuaren inguru zabala marrazten da. Hortaz, administrazio-zuzenbidearen menpeko jarduerara edo funtzio edo jarduera publikoa gauzatzera zuzenean bideratutako jarduera soilik kontrolatzen da.

Horrela ezartzen du 9. artikuluan:

1.- Ikertze-ahalmenak honako hauek hartuko ditu:

- a) Autonomia-Elkarte Osorako Arduralaritza, Tokiko Arduralaritza, Ihardutze-erakunde burujabeak, herri-baltzuak eta haren menpeko gainontzeko izaikiak barne.*
- b) Kondaira-Lurraldeetako Arduralaritza, bertako ihardutze-erakunde burujabeak, herri-baltzuak eta haren menpeko gainontzeko herri-izaikiak barne.*
- c) Toki-Arduralaritza, bertako ihardutze-erakunde burujabeak, herri-baltzuak eta haren menpeko gainontzeko herri-izaikiak barne, Autonomia-Estatutoko 10,4 atalean zehaztutako aginte-eskumenen esparruan.*
- d) Berenezko nahiz lege-nortasundunen arduralaritzazko eskuematebidezko eraentzapeko zerbitzuak eta, orohar, herri-zerbitzuren bat egin eta aldi berean arduralaritzazko nolabaiteko arta edo babespean egon dedin ezein ihardutze-sail, erakunde, edo legezko nahiz berezko ezein nortasundun, Autonomia-Estatutoak Autonomia-Elkarteari agintepideak ematen dizkioneko gaiei buruzko guztian.*

2. Udalaren eskumenak kirolari eta *Multideporte* jarduera kudeatzeari dagokienez:

Euskadiko Tokiko Erakundeen 2/2016 Legeak 17. artikuluan ezartzen du udalek berezkoak dituzten eskumenak gauzatu ahaliko dituztela eremu desberdinetan; hala (Arartekoaren aurrean bideratutako prozedurarekin bereziki lotutakoari dagokionez), hauxe nabarmentzen du 19. atalean: "*Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea*".





Era berean, manu bereko beste atal batzuetan, aurretik aipatutako eskumen orokor horrekin lotutako bestelako ahalmenak jasotzen dira: *33) Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea eta 36) Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.*

Emandako erantzunean, udalak hauxe argudiatu du: *"la denunciante apuntó a sus dos hijos menores a un curso de multideporte ofertado por el Ayuntamiento, ofrecido de forma conjunta por las asociaciones de padres y madres de alumnos de los colegios del municipio, y por la empresa encargada de impartir dichos cursos. Y para facilitar la prestación de ese servicio, el Ayuntamiento ha comunicado los datos de contacto de los padres y madres que han apuntado a sus hijos a dichos cursos tanto a la empresa prestadora como a las mencionadas asociaciones de padres y madres de alumnos".*

Horrez gain, udalak uste du, datu horien lagatzaile gisa, adingabeentzako kirol-jarduerak eskaintzeko eta horiengan jarduera fisikoa sustatzeko legezko xedea betetze aldera jarduten ari dela. Halaber, bi lagatzaileei dagokienez, batetik, zerbitzu hori ematen duen kontratistaren legezko xedea da eskolaz kanpoko jarduera horiek eskaintzea eta bestetik, ikasleen gurasoen elkartearen xedea aipatutako ikastaroen antolakuntzan laguntze da; hortaz, jotzen da Datuak Babesteko Lege Organikoaren 11.2.c) artikuluan xedatutakoa aplikatu behar dela eta datuen komunikazio hori guztiz legezkoa dela.

Udalak, Datuak Babesteko Lege Organikoaren 11.2.c artikuluan xedatutakoari jarraiki, argudiatzen du ez dela kexaren sustatzailearen baimenik behar datuak lagatzeko, baldin eta tratamendu hori harreman juridiko baten onespén libre eta legalaren ondorioz burutzen bada eta hori garatzeko, betetzeko eta kontrolatzeko nahitaez behar bada tratamendu hori hirugarrenen fitxategiekin konektatuta egotea. Hala, komunikazio hori zilegi da justifikatzen duen xedearekin mugatuta dagoenean.

3. Datu pertsonalen legezko babesa

3.i. 1978ko Konstituzioak zenbait funtsezko eskubide ezartzen ditu I. tituluan; hala, eraginkortasun juridikoa ematen die horiei eta zenbait berme-maila ezartzen ditu, zehazki, izaera eta irismen desberdineko erakunde eta tresnen bidez. Eskubide horien artean, Espainiako Konstituzioan ez da agertzen datu pertsonalak babesteko eskubidearen berariazko erreferentziarik. Hala ere, 18.4. artikulua hori aurreikusi egiten du eta, zehazki, honakoa xedatzen du: *"legeak informatikaren erabilera mugatuko du hiritargoaren ohore, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta berauen eskubideen ihardun osoa garantizatzeke".*

Hala, konstituzioaren manu horretatik ondorioztatzen da datu pertsonalak babesteko funtsezko eskubidea edo informazio-autodeterminaziorako eskubidea. Hain zuzen ere, konstituzio-jurisprudentziak (batez ere, Konstituzio-auzitegiaren





azaroaren 30eko 292/2000 Epaia) hori ezartzean, adierazi du eskubide horren eremua intimitaterako eskubidearena baino zabalagoa dela.

Hori adierazi egin du Konstituzio-auzitegiak aipatutako epaian:

“La protección de datos no se reduce sólo a los datos íntimos de la persona, sino cualquier tipo de datos de carácter personal, sean íntimos o no, cuyo conocimiento o empleo por terceros puede afectar a sus derechos sean o no fundamentales, porque su objeto no es sólo la intimidad individual, que para ello está la protección que el art. 18.1 CE otorga, sino los datos de carácter personal. Por consiguiente, también alcanza a aquellos datos personales públicos, que por el hecho de serlo, de ser accesibles al conocimiento de cualquiera, no escapan al poder de disposición del afectado porque así lo garantiza su derecho a la protección de datos. ...” (FJ 6º).

Nabarmendu behar da eskubide hori ez dela mugatzen beste eskubideen berme-tresna izatera informatikaren erabilera okerraren aurrean. Izan ere, funtsezko eskubide bat da eta, hortaz, berezko funtsezkotasuna eta autonomia ditu gainerakoekin alderatuta.

Horrenbestez, eskubide hori ez da nahasten intimitaterako eskubidearekin; izan ere, informazio-autodeterminaziorako eskubidea, horrela, ez da geratzen ezezagunek burututako erasoak eta esku-hartzeak ukatzeko legezko aukerara mugatuta. Aitzitik, orain, dimentsio berria dauka (zentzu positiboa) eta pertsonaren askatasuna aitor daiteke datu pertsonalen sarbidea, tratamendua eta zirkulazioa kontrolatu ahal izateko (*“Habeas data”*), horiek intimoak izatea gorabehera.

3.ii. Informatzeko beharra eta informazio-klausulen irismena

Edozein datu pertsonal eskatuko zaien pertsonari informatzeko beharra, zehazki, datu horiek tratatu aurretik, Datuak Babesteko Lege Organikoaren oinarri diren funtsezko printzipioetako bat da eta horrela zehaztuta dago II. tituluaren barruan, hain zuzen, horren 5. artikuluan.

Informazio-eskubidea datuak biltzean.

1. Datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko zaie, ondoko hauen inguruan:

- *a) Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea eta informazio horren jasotzaileak ere. (...)*
- *d) Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea.*
- *e) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea edo, hala denean, arduradun horren ordezkariarenak. (...)*





2. Datuak biltzeko galdera-sortak edo beste inprimaki batzuk erabiltzen badira, aurreko idatz-zatian aipatutako ohartarazpenak jasoko dira halakoetan, argiro irakurtzeko moduan jaso ere.

Hortaz, datu pertsonalak eskatuko zaizkien pertsoneri informatu beharko zaie aurretiaz 5.1 artikulua eduki, horrela datu horiek **zertarako tratatuko diren eta nork tratatuko dituen jakin dezan**. Izan ere, horrela, edozein momentutan gauzatu ahalko ditu eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak.

Zallako Udalak, bere argudiatzea indartzeko, adierazten du datuen komunikazioa Datuak Babesteko Lege Organikoaren 11.2.c) artikuluan xedatutakora egokitu zela, hau da, harreman juridiko baten onspen libre eta legalari dagokiola, hain zuzen ere, hori garatzeko, betetzeko eta kontrolatzeko, nahitaez, tratamendu hori hirugarrenen fitxategiekiko konektatuta egotea inplikatzeko duena. Onartzen dugu legeko gaikuntza hori egotea eta, horrenbestez, interesdunaren baimena beharrezkoa ez izatea datuak jakinarazteko; hori dela-eta, aipatutako errekerimenduak are intentsitate gehiago hartzen du, hau da, izena emateko inprimakian eskatzen den informazioa datu pertsonalak benetan ematen diren fitxategiaren determinaziora iristea, udalak aurreikusten duen tratamendura, baita horiek biltzeko xedera eta informazioaren hartzaileetara ere (kasu horretan, Gurasoen Elkarte eta zerbitzua ematen duen enpresa).

Legegileak garrantzi handia ematen dio tratamenduaren xedea ezagutzeari, informatzeko behararen esparruan. Hain da handia garrantzi hori, non deuseztasunarekin zehatzen duen hori gabe emandako baimena. Horrela, Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzen duen arautegia onartu zuen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak hauxe ezartzen du 12. artikuluan:

"1. El responsable del tratamiento deberá obtener el consentimiento del interesado para el tratamiento de sus datos de carácter personal salvo en aquellos supuestos en que el mismo no sea exigible con arreglo a lo dispuesto en las leyes.

La solicitud del consentimiento deberá ir referida a un tratamiento o serie de tratamientos concretos, con delimitación de la finalidad para los que se recaba, así como de las restantes condiciones que concurran en el tratamiento o serie de tratamientos.

2. Cuando se solicite el consentimiento del afectado para la cesión de sus datos, éste deberá ser informado de forma que conozca inequívocamente la finalidad a la que se destinarán los datos respecto de cuya comunicación se solicita el consentimiento y el tipo de actividad desarrollada por el cesionario. En caso contrario, el consentimiento será nulo".

Datu Pertsonalak Babesteko Legearen 3.h) artikuluan baimen hori honela definitzen da: *"Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, bera ukitzen duten datu pertsonalak tratatzeko adostasuna emateko"*.



Horri dagokionez, oso adierazgarria da Datuak Babesteko Euskal Agentziak 2010eko ekainaren 29an igorritako **CN10-011 Irizpena**; bertan, hain zuzen ere, Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikulua erreferentziarekin lotutako informazio-klausula orokor baten edukia aztertzen da eta adierazten da informazio-klausulan tratamenduaren xedea jaso behar dela, modu zehatz eta esplizituan.

Kontsulta horren edukian Auzitegi Nazionalaren 2003ko urtarrilaren 31ko epaia aipatzen da, honakoa ezartzen duena aurretik aipatutako manuaren a) eta e) atalen edukien inguruan: *"son siempre de obligada información a los interesados, por imperio del apartado 3º de dicho artículo, sin que quepa su exclusión por el hecho de que los datos sean dados voluntariamente por los interesados y conociendo su finalidad."*

Era berean, Auzitegi Gorenak, 3. Salako 6. Atalaren 2000ko apirilaren 4ko Epaian eta 2006ko urriaren 26ko Epaian (rec. 3390/2002) termino hauetako adierazpena jasotzen du: *"La Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal pone de manifiesto el carácter consustancial que el elemento de la información tiene con la prestación de consentimiento en relación con la disposición de los datos personales, pues en el artículo 3.) h) define el consentimiento del interesado como toda manifestación de voluntad, libre, inequívoca, específica e informada, mediante la que el interesado consienta el tratamiento de datos personales que le conciernen y en el artículo 11.3 dispone que será nulo el consentimiento para la comunicación de los datos de carácter personal a un tercero, cuando la información que se facilite al interesado no le permita conocer la finalidad a que destinarán los datos cuya comunicación se autoriza o el tipo de actividad de aquél a quien se pretenden comunicar."*

Zentzu berean, Datuak Babesteko Euskal Agentziaren 2011ko otsailaren 22ko beste irizpen batek horren inguruko adierazpen egokia egiten du, (CN10-032); bertan, nabarmentzen da kontuan hartu behar dela informazio-printzipioa adostasunaren printzipiora lotuta dagoela, hau da, "interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, bera ukitzen duten datu pertsonalak tratatzeko adostasuna ematearekin" lotuta dagoela (Datuak Babesteko Lege Organikoaren 3. artikulua). Hala, borondate-adierazpen hori benetan askea izan dadin, beharrezkoa da informazioa osorik egotea. Hori dela-eta, desiragarria litzateke informazio-klausulak ahalik eta gehien mugatzea Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5.1. artikulua eduki zehatzera.

3.iii. Datuak Babesteko Arautegi Orokor berriari jakinarazteko betebeharra.

Pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez babesteari buruzko EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko ARAUTEGIAK 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen du eta, zehazki, 2016ko apirilaren 27an argitaratu zen. Hala, Europar Batasun osoan zuzenean aplikatu beharreko arau bat da eta 2018ko maiatzaren 25etik aurrera aplikatu behar da; gainera, egungo Datuak Babesteko



Lege Organikoa eta hori garatzen duen RD-1720/2007 Arautegia ordeztuko ditu data horretatik aurrera.

Izan ere, arautegi orokor honek zenbait aldaketa eta berritasun gehitzen ditu eta horietara egokitu behar dira egungo tratamenduak, hain zuzen ere, horiek guztiz aplikatu aurretik. Ildo beretik, bereziki nabarmentzekoak dira informatzeko behararekin lotutako aldaketak.

Beraz, nahiz eta salatutako egitateak gertatu zirenean aplikagarria ez izan, balio du ulertzeko informatzeko behar hori, txikiagotu beharrean, nabarmen areagotzen da. Zehazki, egun indarrean ez dauden bestelako betekizun gehigarri batzuk jasotzen ditu eta tratamenduaren arduradunari esleitzen dio informazio osoa emateko zama eta, horrek, hain zuzen ere, galdagarritasun plus bat emango die herri-administrazioei ondorengo datetan. Halaber, erkidegoko legegileak informatzeko beharri ematen dion garrantzia antzematea ahalbidetzen du.

4. Whatsapp-taldeen sorrera

Kexagileak aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, non telefono mugikorraren pantaila-argazkiak jasotzen diren, argi eta garbi antzematen da "Multideporte 2017-2018" izeneko whatsapp-talde bat existitzen dela, jardueraren ikono alegoriko batekin. Hortaz, talde horretara gehitutako kide guztiek ikus ditzakete besteen telefono-zenbakiak, baita 48 parte-hartzaile dituen talde hori sortu duen eta administratzen duen pertsonaren telefonoa ere.

Ebazpena: Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren R/03041/2017 Ebazpenak horren iritzia adierazten du aipatutakoaren antzeko kasuetarako: *"Aunque el Ayuntamiento parece justificar que el conocimiento de un dato de carácter personal faculta para su utilización indiscriminada y para cualquier finalidad, de tal forma que el hecho de tener conocimiento de un dato de carácter personal merma las facultades del titular del dato para disponer sobre su uso, lo cierto es que la facilitación de datos de carácter personal por parte de los titulares de los mismos no habilita al responsable del fichero o tratamiento al uso de esa información para fines distintos de los que motivaron su recogida, no cabiendo tampoco la recogida de los datos de carácter personal asociados al medio de contacto utilizado por los afectados sin informarles sobre las finalidades concretas a las que se van a destinar".*

Jurisprudenziaren ikuspegitik, Auzitegi Nazionalak hauxe adierazten du 2004ko martxoaren 17ko epaian: *el artículo 4.2 de la LOPD prohíbe es que los datos de carácter personal se utilicen para una finalidad distinta de aquella para la que han sido recogidos.*

Horrela, Datuak Babesteko Lege Organikoaren legegileak "antzeko helburuen" sinonimo gisa erabiltzen duen "helburu bateraezinak" adierazpena hartuta, ondorioztatzen da, datuak helburu zehatz baterako ematen badira eta, horren ostean, datuak eman ziren helburuarekin erabiltzen edo tratatzen ez badira Datuak





Babesteko Lege Organikoaren 4.2. artikulua urratuko lukeen helburu-desbideratze bat izango litzatekeela.

Auzitegi berak, zehazki, 2005eko ekainaren 15eko epaian, adierazten du Datuak Babesteko Lege Organikoaren 4. artikulua bereizketa txiki bat ezartzen duela bilketaren xedearen eta tratamenduaren xedearen artean, hain zuzen ere, arrazoi honengatik: *"pues la recogida sólo puede hacerse con fines determinados, explícitos y legítimos, y el tratamiento posterior no puede hacerse de manera incompatible con dichos fines. Así pues, y de acuerdo con el artículo 1.b) de la Directiva 95/46/CE de 24 de octubre de 1995 (en cuya redacción se inspira el repetido artículo 4.2 de nuestra LOPD), si la recogida se hizo con fines determinados, cualquier uso o tratamiento posterior con finalidad distinta es incompatible con la primera finalidad que determinó la captura por lo que, en este contexto, diferente o incompatible significan lo mismo."*

5. **Ondorio gisa**, esan daiteke, kexaren sustatzaileak emandako informaziotik eta udalak berak zehazten duen informaziotik abiatuta, Arartekoak bi alderdiren inguruan eman dezakeela bere iritzia:

- Udalak Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikulua jasotzen duen informatzeko beharraren edukia eta errekerimenduak behar bezala bete ote zituen, kontuan hartuta geroago kexagilearen datu pertsonalak Gurasoen Elkarteari jakinarazi zitzaizkiola.
- Gurasoen Elkarteak datu pertsonal horiek, zehazki, telefono-zenbakia erabiltzearen zilegitasuna datuak biltzeko eta tratatzeko bestelako xede baterako -whatsapp-talde bat sortzeko bezalaxe-.

Aztertu beharreko lehenengo kontuari dagokionez, Zallako Udalaren inprimakian jasotako informazio-klausula horrek jakinarazten du datu pertsonalak udalaren titulartasuneko eta erantzukizuneko fitxategi batean sartuko direla. Halaber, adierazten du fitxategiaren helburua dela udal-kudeaketa burutzea bere eskumeneren eremuan eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak kontserbatzeko eta gauzatzeko beharraren berri ematen du. Beraz, nahikoa zela jo zitekeen, Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikulua informatzeko beharraren ondorioetarako, baldin eta datuen tratamenduak udalak berak zuzenean egingo balitu. Hala ere, aztertutako kasuan xedea datu pertsonal horiek hirugarrenei lagatzea zen; horregatik, klausula hori ez da nahikoa lagatzaileen inguruko informaziorik ematen ez duelako: Gurasoen Elkarteak eta kirol-jarduera kudeatzen duen enpresa. Hori, hain zuzen ere, arauaren hitzez hitzeko zentzuaren eta izaeraren aurkakoa da.

Horrenbestez, kexaren sustatzaileari datu pertsonalak biltzerakoan informazio nahikorik ez emateagatik, ezin izan da eskuratu behar bezala informatutako baimena, zehazki, datu pertsonalak biltzea onar zezan. Hortaz, informatzeko beharraren ez-betetze akastun bat egon da.





Bigarrenari dagokionez, Arartekoak ez dauka eskumenik euskal herri-administrazioen taldean sartzen ez diren erakundeek edo pertsonek datu pertsonalak babesteko eskubidea betetzen ote duten kontrolatzeko. Hala, begi bistakoa da Gurasoen Elkarteak izaera pribatuko elkarte bat dela, berezko nortasun juridikoa duela eta hezkuntza-erkidegoaren barruan sartuta dagoela; hortaz, Arartekoaren eskumen-irismenetik harago doa kontrol hori.

Horrek ez du eragozten gomendio honetan aipatzea whatsapp-taldeak sortzeari buruzko doktrina eta jurisprudentzia orokorra, jardunbide egokien oroigarri gisa. Izan ere, talde horiek sortzea oso erraza denez eta, zalantzarik gabe, zenbait esferatan erabilgarria denez, gaizki-ulertu bat egon daiteke, hau da, gerta daiteke, etxeko eremutik kanpo taldean sartzen diren pertsonen baimenik ez eskatzea taldean sartu aurretik.

Horregatik guztiatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Zallako Udalari honako gomendio hau egiten zaio:

GOMENDIOA

- Udal-inprimakietan datu pertsonalak tratatzeari buruzko informazio-klausularen edukia aldatzeko eta biltzen diren datuen lagapenaren hartzaileak argi eta zehatz jakinarazten direla bermatzeko, hori guztia Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritako terminoetara egokituz.
- Laster Datuak Babesteko Arautegi Orokorra indarrean sartuko denez (datorren maiatzaren 25etik aurrera), inprimakian agerrarazi behar den informazioa berrikusteko, bereziki, datu pertsonalen lagapenaren hartzaileen ingurukoa.

